


# 1584

# Lucas Jansz Waghernaerren **mapa**

**Spieghel der Zeevaerdt (Marinelaren ispilua)**

Waghernaer (c. 1533-1606) itsasgizon eta kartografo holandarra izan zen. Irakurri izan dut hauxe izan zela munduko lehenengo itsas atlasa (the world's first nautical atlas or pilot guide). Ez dakit hala den, dakidana da izugarri polita dela. Lehenengoz 1584an argitaratu zen eta hainbat argitalpen izan zituen, Espainiako Liburutegi Nazionalak (BNE) 1586, 88 eta 91koak ditu. Waghernaerren ahaleginak arrakasta itzela izan zuenez handik gutxira *Thresoor der zeevaert* eta *Enchuyser zee-caert-boeck* nabigazio liburuak argitaratu zituen, hainbat hizkuntzatara itzuliko zirenak (alemanera, ingelesera, frantsera eta latinera). Hain zuzen ere, erabili dudan irudia *Thressor der zeevaert* liburuan agertu zen 1601 aldean. Kontuan izan hainbat ale eta ediziotan ez dela Lekeitio ageri.

Baina Lekeitio lehenago ere agertu zen mapetan: Cresquesen 1375ekoan (Atlas katalana) ez ginen agertu, baina 1424ko Zuane Pizziganorenean bai. Ondo legoke honetaz gehiago jakitea!






Beschriuinge vande zeecosten van Gascoigne ende Biscaien ende de ghelgentheit van haerlieder hauenen, op hauenen, op haeren winden ende streke [Material cartográfico]= Description des costes maritimes de Gascoigne et Biscaye, ensemble la situation de leur ports, selon leur vents et routes / [Lucas Janszoon Waghenaer]
1601? Calais : Imprimé aux despens & pour Bonaventure d'Aseville, Marchant Libraire



Biblioteca Nacional de España
bne.es